



Uraren euskal agentziaren memoria

→ 2015KO ←



PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

urà da.
GU gARA.

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua



1. Agurra	3
2. Aurkezpena	5
3. gobernu, kudeaketa eta aholkularitza organoak	6
3.1. KUDEAKETA ORGANOAK	7
3.1.1 Eremuko zuzendaritzak.....	7
3.1.2 Arroen Bulegoak.....	7
4. Administrazioa eta zerbitzuak	8
4.1. PLANTILLA.....	8
4.2. URAREN AURREKONTUAK.....	8
4.2.1 Ustiapen-aurrekontua.....	8
4.2.2 Kapitalaren aurrekontua.....	8
4.3. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KOMUNIKAZIOA.....	9
4.4. BERDINTASUN PLANA.....	9
4.5. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIORAKO PLANA.....	10
5. Jabari Publikoaren kudeaketa	12
5.1. HOBETZEKO JARDUKETAK.....	13
5.1.1 Simplifikazio eta azkartasun administratiboa.....	13
5.1.2 JPKZ-aren kudeaketa sistema eta zerbitzuen katalogoa.....	13
5.1.3 Landa-lanak kudeatzeko tresna informatikoa (KLK).....	14
5.1.4 Jabari Publiko Hidraulikora (JPHra) isurketa baimenen espediente izapidetze elektronikoa.....	14
5.1.5 Erakundeen artean Ibaien mantentze lanak sustatzeko hitzarmenak.....	16
5.1.6 Isurketen analitikak kargatzeko tresna informatikoa (DKT).....	16
5.1.7 OBIEE Informazioaren kudeaketa dinamikorako tresna.....	17
5.1.8 Uren erregistroa eta aprobetxamendu-emarien kontrola.....	17
5.1.9 Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa.....	18
5.1.10 Emari ekologikoen hitzartze prozesua.....	19
5.1.11 Gainezkatze-puntuen inbentarioa.....	19
5.2. BAIMEN ETA EMAKIDEN ARLOA.....	19
5.2.1 Lan-baimenak Ur-Jabari Publikoan eta zaintza-aldean.....	19
5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan.....	20
5.2.3 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona.....	21
5.3. ISURKETEN ARLOA.....	23
5.3.1 Isurketa-baimenak.....	23
5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua.....	23
5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona.....	25
5.4. UR-APROBETXAMENDUAK.....	25
5.4.1. Uraren kanona.....	28
5.4.2. Uraren erabileren inbentarioa.....	28
5.5. IBILGUAK MANTENTZEKO ZERBITZUA.....	29
5.6. IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA.....	32
5.6.1. Ikuskaritza-arloa.....	32
5.6.2. Laborategia.....	32
6. Plangintza eta lanak	35
6.1. PLANGINTZA HIDROLOGIKOA.....	35
6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena.....	35
6.1.2 Plangintza hidrologikoaren beste jardura batzuk.....	36
6.1.3 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak.....	38
6.1.4 Informazio-sistemak.....	40
6.1.5 Lankidetzeta-hitzarmenak.....	42
6.1.6 Formakuntza eta sentsibilizazio ekintzak.....	45
6.2. EBALUAZIOA.....	46
6.3. UHOLDEEIAURREAHARTZEA.....	47
6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn.....	47
6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE).....	52
6.3.3 Informazio Hidrologikoaren Sistema Automatikoa (SAIH).....	52
6.4. LANAK.....	52

1. Agurra

Lagun hori:

Esku artean duzu URA-Uraren Euskal Agentziako lan-taldeak 2015ean burututako lan-egitasmo nagusien memoria. Euskadiko herritarrentzat lan egiten dugun zerbitzu publikoa gara. Gure lanaren funtsa, agerikoa: ingurune urtarraen egoera ona lortzea. Izan ere, herri honetan bizi garen pertsonon ur-berrizenak asetzeko bermerik hoberena da. Parez pare, uholde arriskuaren kudeatzea dagokigu. Labur-labur esanda, bermatu beharra dugu ur goraldiek bere egiten dituen lurraldearen eremuak ez okupatzea. Halaber, ibaiari legozkiekeen eta jada okupatutako lurraldearen eremuetan, goraldiei aurre egin behar diegu: pertsonak nahiz eremu kalteberak defendatzeko.

Izan ere, "Ura da. Gu gara". Herririk ez da ur-kalitate eta ur-kantitate nahikoa izan ezean. Jakin badakigu ura oinarritzko baliabidea dugula; hortaz, ezinbestekoa berau zaindu eta egoki kudeatzea, gure ongizatea lortuko badugu. Jakitun gara, bestalde, ura dela ekosistemaren oinarria, zein ekosistema horren kide eta menpe garea. Balio izugarria duen ondarea delako, lurraldean harekin ondo elkarbizitzea lortu behar dugu. Ezinbesteko ditugu bere izaera aintzat hartzea, bere egiten dituen eremuetan ez sartzea eta bere izaera dinamiko setatia errespetatzea.

Beste era batera esanda: geure jardun eta presentziak ur-masetan sortzen dituzten erasanak — ur-hartze, isurketa edota lurraldearen okupazioen bidez — murriztea eta lehengoratztea dugu helburu.

Zentzu horretan, 2015ean, datozen urteetako uraren politika zedarrituko dituzten oinarriak zehaztu dira. Besteak beste, aipatu nahi nituzke Plan Hidrologikoak, Uholde Arriskua kudeatzeko Planak edota Kudeaketa-mandatu berria. Era berean, tinko dihardugu jabari publiko urtarra kudeatzen: bertan egiten diren erabilerak ahalik eta kalte gutxien sor ditzaten ur-masen egoera ekologikoan. Azkenik, azpimarratzekoa da gure egiten ditugula genero-berdintasuna nahiz euskararen normalizazio lortzea. Hartara, Berdintasun-plana eta Euskararen Erabilera Plana onartu ditugu. Aurrerantzean, plan horiek biak garatzea dagokigu: ekar liezazkigukeen onurak gauzatzeko, eta bidezko eta berdintasunezko gizartearen alde egiten laguntzeko.

URAn lan egiten dugun lan-taldearen izenean, gonbitea luzatzen dizugu memoria irakurtzera. Ongietorriak bitez zure iritzi eta iradokizunak, ziur baikaude gure jarduera hobetzeko lagungarri izango zaizkigula. Horrenbestez, agur.

IÑIGO ANSOLA KAREAGA.
ZUZENDARI NAGUSIA



zer da ibaia

Errekak, ibaiak. irudikatzen ditugunean, uraren bide hutsa irudikatzen dugu. Alegia, urak gehienetan hartzen duen eremu hori. Baina, ibaiak hori baino askoz ere gehiago dira. Ibilguan zein ibilgu aldamenen bizi diren animaliak eta landaredia ere ibaiaren parte dira. Izaki bizidun konplexua da ibaia; izaera tinkoa duena. Izaera aldakorrekoa, gainera.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=hHzktroBht8



2. AURKEZPENA

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia ekainaren 23ko 1/2006 Uren Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.

2015. urtean arlo honetan bai nabarmendu behar da URAk arloan eskumenak dituzten beste erakunde batzuekin batera lortutako akordioa herritarrarentzat leihatila bakarra izateko bide horretan.

*25/2015 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa,
Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak
onartzen dituena.*

3. gobernu, kudeaketa eta aholkularitza organoak

URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URAK parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

Erabiltzaileen Batzarra, biltzera datorrena Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak.

Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartzen dute.



3.1 Kudeaketa ORGANOAK

3.1.1. EREMUKO ZUZENDARITZAK

Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak hiru Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mendean


- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza



3.1.2. ARROEN BULEGOAK

Bestalde, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz).

Parte-harte eremuak eta unitate hidrologikoak





4. Administrazioa eta zerbitzuak

4.1 PLANTILLA

Uraren Euskal Agentziaren lantaldea 2015ko abenduaren 31an, honako hauek osatzen dute

KATEGORIA	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Zuzendaritza Nagusia	1		1
Arlo zuzendaritza / Bulegoburuak	6	3	3
Teknikariak eta tarteko arduradunak	118	46	72
Administrariak	39	34	5
LAN-HARREMAN MOTA			
Funtzionarioak	19	9	10
Laboralak	145	74	71
GUZTIRA	164	83	81

4.2 Uraren aurrekontuak

4.2.1. USTIAPIEN - AURREKONTUA

GASTUAK	2015
LANGILEEN GASTUAK	8.037.115
FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK	6.813.667
GUZTIRA	14.850.792
SARRERAK	
EJko USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK	11.220.053
SARRERA PROPIOAK	3.630.740
GUZTIRA	14.850.793

4.2.2. KAPITALAREN AURREKONTUA

INBERTSIOA	2015
BEREZKO ONDASUNAK	23.794.665
BESTE ERAKUNDE BATZUETARAKO KUDEATUTAKO ONDASUNAK	643.850
HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	163.426
GUZTIRA	24.601.941



4.3 Uraren Euskal Agentziaren Komunikazioa

Uraren Euskal Agentziaren helburu nagusietako bat Komunikazio eraginkorra eta gardena lortzea da.

Helburu hori lortzeko dagoeneko hainbat bide irekita zeuden herritar zein komunikabidek kontsultak kexak edo iradokizunak helarazteko. Hauek dira horien emaitzak

Prentsa kabinetea, horren bitartez Uraren Euskal Agentziaren jardueri buruz informatzen jarraitzen da. Horrekin batera komunikabideen kontsultak erantzun dira, 125 urte honetan.

Kontsulta-buzoia: horren bitartez erantzuten dira herritarrek Agentziara helarazten dituzten kontsultak, iradokizun, kexak etab. Aurten 197 kontsulta.

Web-gunea: Etengabeko eguneraketan dagoen webguneak batez besteko 50.000 bisita inguru jaso ditu.

Sare sozialak: 2015an dagoeneko twitter (1000 jarraitzailera heldu da), you tube edo flickr bezalako sare sozialetan hasitako lana jarraitu egin da eta bloga elikatzen jarraitu dugu, bertatik URaren lanari jarraipena egiten jarraitzeko formatu desberdinen bitartez: testua, argazkiak, bideoak...

Iaz abian jarritako newsletterak bere bidea jarraitu du eta 400 bazkide inguru ditu gazteleraz eta 20 euskaraz. Aldizkari horretan URaren azken albisteak eskaintzen dira eta martxan dauden lizitazioak.

Horrez gain aurten herritarrari gero eta gehiago hurbiltzeko nahi horretan Facebook (1000 jarraitzailetik gora) eta instagramen lanean hasi gara.

4.4 Berdintasun PLANA

URak iaz hasitako berdintasunaren lan-ildoan jarraitu du, etorkizunera begira erakundearen konpromiso bezala barneratzeko. Baina ez bakarrik Emakunde bezalako kanpainen kide izaten, edo langileei hainbat arlotan generoaren ikuspuntuako formakuntza ematen, aurreko urteetan ere egin dugun bezala. Urrats bat gehiago eman nahi dugu generoaren ikuspuntua erakundearen modu orokor eta zeharkako batean hedatzeko.



Hartara, 2015ean berdintasun plana adostu da, **Berdintasun taldeak** sustatua (zuzendaritzako, langileen ordezkartzako eta URAko lanpostu desberdinetako pertsonen osatutako taldea) zuzendaritzak onartua eta langileen aurrean aurkeztua. Plan horren lehen ekintzetako bat ere burutu da, hain zuzen ere, **Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokoloa**

Halaber, gai horiek era hurbilago batean landu eta dinamizatzeko asmoarekin txoko lila bat jarri da URaren bulego bakoitzean eta bertan eskegitzen goaz hausnarketarako testuak inkestak berdintasunaren inguruko gai ezberdinekin (estereotipoak, lan eta familiaren arteko bateragarritasuna.).

4.5 **euskararen erabileraren** NORMALIZAZIORAKO PLANA

Sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, eta sektore publikoko fundazio eta partzuergoek euskararen erabilera bermatu beharra dute herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan, herritarrak aukera izan dezan nahi duen hizkuntza hautua egiteko.

Lan hori bideratzera dator, hain zuzen, plan hau; xede duena herritarrak beraiek aukeratutako hizkuntzan artatzea, herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, eta, beraz, aipatutako ofizialtasuna gauzatzeko euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzea. Plan horretan talde eragileak parte hartu du, ondoren zuzendaritzaren oniritzia jaso duen Plan bat aurkezteko eta langileei ezagutzera emateko.



ISURKETAK

Ibaien osasuna, hein handi batean, uraren kalitatearen araberakoa da. Isurketa kutsakorrek erasanak sortzen dituzte ingurune urtarrean, bere oreka galarazten diote-eta. Horiek kudeatzen hobetu dugun arren, oraindik badugu zer hobetu.

➔ https://www.youtube.com/watch_popup?v=1neLy5C3PF8



5. Jabari Publikoaren Kudeaketa

5.1 hobetzeko JARDUKETAK

2015. urtean, Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzatik honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Simplifikazio eta azkartasun administratiboa
- JPKZ-aren Kudeaketa Sistema eta Zerbitzuen Katalogoa
- Landa lanak kudeatzeko tresna informatikoa (KLK)
- JPH isurketa baimenen espediente izapidetze elektronikoa
- Erakundeen artean lbaien mantentze lanak sustatzeko hitzarmenak
- Isurketa analitiken karga egiteko tresna informatikoa (DKT).
- OBIEE Informazioaren kudeaketa dinamikorako tresna
- Uren erregistroa eta aprobetxamendu-emarien kontrola
- Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa
- Emari ekologikoen hitzartze prozesua
- Gainezkatze-puntuen inbentarioa.

5.1.1. SIMPLIFIKAZIO eta AZKARTASUN ADMINISTRATIBOA

2014an JPKZ-ak Kudeaketa Sistemako agirien egituraketa eta normalizazioa izeneko projektuan murgildu zen , honako 3 lan nagusiak bete dituenak

- Jabari publiko hidraulikoan edozein ekimen baimentzeko prozeduraren inguruko agirien egituraketaren analisia eta hobekuntzak egiteko proposamena.
- JPKZn kudeaketa sistemaren agirien egitura orokorraren inguruko analisi eta proposamenak.
- JPKZ izapideei dagokien agirien txantiloak ordenatzeko irizpideen analisia egin eta zehaztu.

Aurreko lanei jarraipena emateko eta horiek osatzeko asmoarekin 2015ko udan urte bateko iraupena izango duen proiektu berri bat hasi zen “Urenen Euskal Agentziaren Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarentzat kudeaketa sistema eta sinplifikazio lanaren prestaketa”. Proiektu horretan egindako lan nagusiak honako hauek izan dira.

- **Prozedura orokor eta berariazko prozedurei dagokienez:**
 - Kudeaketa Sistemako agirien egitura eta administrazio Prozedura Orokorra berrikusi.
 - Ikuskaritzaren Prozedura orokorra.
 - Jabari publikoan eta bere zaintza eta zortasun eremuan edozein ekintza baimentzeko prozedura orokorraren berrikuspena.
 - Itsas-lehorra babesteko zortasun eremuan edozein jarduera baimentzeko prozedura orokorra.
 - Ikuskaritza lanetan laginak hartzeko Berariazko prozedura.
 - Hirigintza txostenak izapidetzeko Berariazko Prozedura.



- 🗨️ **Zuzendari nagusiaren eginduei dagokienez:**
 - Baimenik ez duten lanak gelditzeko Agindua berrikusi.
 - Arauz kontrako asentu baten aurrean nola jokatu zehazten duen Agindua berrikusi.
 - Sailburuordearen Agindu bezala izapidetzera igaro da Ur aprobetxamenduetatik eratorritako ur kopuruen kontrolerako sistema erregulatzeko aurreikusita zegoen agindua.
- 🗨️ **Irizpideei dagokienez:**
 - Espedienteen izapidetzean eskaneatu beharreko agiriak zehaztu.
 - Isurketa baimenen autokontrolen karga tresna elektronikoan.
 - Berotegietarako baimenak uholde arriskua duten eremuetan eta horietarako derrigorrezko erretiroa.
 - Gasolindegiei dagozkien jarduerak.
- 🗨️ **Inprimakiei dagokienez:**
 - Landu egin dira lan-baimenen arloko inprimaki nagusiak 2016an inprimaki berriak prest izateko helburuarekin.
 - Isurketen inprimaki berriak eguneratu eta 2015ko martxoaren 9ko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bitartez onartu egin ziren.
- 🗨️ **Txantilioei dagokienez**
 - 24 txantilioi orokor onartu egin dira JPKZ arlo guztiei zeharkako zerbitzua emateko.
- 🗨️ **Webguneari dagokionez**
 - Webgunearen oinarrizko elementu batzuen inguruan akordioa lortzen da.
 - Inprimaki eta informazio-orri berriak laukietan aurkezteko moduari buruz akordioa lortzen da.
 - Galdera orokorren inguruko atal bat sortzeko akordioa lortzen da.

- Webguneko araudia eguneratzeko lan egin da.
- Izapideak Euskadi.eus-ek eskaintzen duen egitura berrira moldatzeko berrikuspen lanak hasten dira

5.1.2. JPKZ-aren kudeaketa sistema ZERBITZUEN KATALOGOA

2014an JPKZaren Zerbitzuen Katalogoa zehazteko lanak hasi ziren, oinarrizkoa behar bezala zehaztu ondoren, URAko zuzendaritzetan sinplifikazio administratiborako diagnosi bat egiteko kontratu txikiaren barruan. Horretarako, era berean, DACIMArekin batera lan egiten hasi ginen.

Zerbitzuen katalogoa zeharkako tresna bat da, Eusko Jaurlaritzaren Sail guztietan aplikatzen dena, eta herritarrengan eragin zuzena duten izapideak zehaztera bideraturik dagoena, horien irizpideak bateratzeko helburuarekin.

Zerbitzuen Katalogoak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, beharrezkoak diren zerbitzuak zehaztu horiek zabaldu eta toki egokietan integratzeko; eta, beste alde batetik, zerbitzuen digitalizazio prozesuak hobetu eta automatizatzea egun dagoen azpiegitura elektronikoak erabilita (Platea-presentzia interneten, Platea-izapidetzea, Dokusi), paperaren erabilera murrizteko.

Halaber, JPKZ prozedurak Katalogoan sartzea derrigorrezko baldintza da tramitazio elektronikoa abian jarri ahal izateko.

2015ean Zerbitzuen katalogoa zehaztea lortu dugu; hain zuzen ere, 22 zerbitzu eta 55 prozedura zuzendaritza honetan.



5.1.3. Landa - Lanak Kudeatzeko TRESNA INFORMATIKOA (KLIK)

Baliabide honen funtzio nagusia da isurketa obra eta emakiden ikuskaritzetan egindako landa-lanen erregistroa zentralizatzea, bai emandako baimenen baldintzen betetzeari dagokionez zein baimenik ez duten kalteak antzemateari dagokionez. Halaber, ikuskariak landara ateratzerakoan PDA-tan jasotako datuak bildu beharko ditu.

Ondoren sistemaren helburuak aipatzen dira, honako lan hauek modu eraginkorrago batean egiteko balioko dutenak

- Isurketa, lan eta emakida izapideei dagozkien ikusketen urteko plangintza egin Espediente Kudeatzailean bildutako informazioan oinarrituta.
- Ikusketen informazioa jaso eta bildu, hala bisitaren datu orokorrak nola ikusketa mota desberdinen berariazko datu teknikoak eta txostenak.
- JPH-an antzemandako baimendu gabeko jardueren informazioa jaso eta bildu: datu orokorrak zein harremana duten datu teknikoak.
- Bildutako informaziora sarbidea erraztu, horren kudeaketa ahalbidetzeko.
- Beste sistema batzuekin bateratzeko bideak eskaini (adibidez: sistema analitikoa, Espediente Kudeatzailea, GIS, Erakundeen Kudeatzailea) sisteman bildutako informazioa erabili ahal izango dutena, edota zehaztutako kudeaketa egiteko informazioa eskainiko dutenak.

2015ean 2 bilera egin ziren lan horren jarraipena egiteko: martxoaren 31a eta maiatzaren 7a.

Beharrezko proben ondoren sistema abian jarri zen 2015ko uztailaren 1ean, horrekin batera oraindik jarraitzen duen jarraipen funtzional eta teknikoa egiteko epea bat ireki zen.

2015eko azaroaren 30ean proiektu-amaierako bilera egin zen, eta, bide batez, lana amaitutzat ematen da. 2015eko abenduaren 4ean EJIEK "Proiektu amaierako txostena" aurkezten du eta abenduaren 21ean proiektua jaso izanaren txostena sinatzen da

5.1.4. Jabari Publiko Hidraulikora (JPhra) Isurketa baimenen ESPEDIENTE IZAPIDETZE ELEKTRONIKOA

2015ean zehar tresna informatiko bat landu da JPH Isurketa baimenen izapidetze elektronikoa ahalbidetuko duena. Horretarako, erreminta bat sortu da Platea (herritarrak Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikotik ikusten duena) espediente kudeatzailearekin harremanetan jartzeko (espedienteak kudeatzeko barneko tresna).

Espediente kudeatzailean aldaketak egin dira tresna izapidetze elektronikora moldatzeko, adibidez sinadura elektronikoa sartzeko JPH isurketa baimenetan, espedientea era elektronikoa zein postalean egin. Horrekin batera beharrezko aldaketak egin dira komunikazio eta jakinarazpenak bide postal zein telematikotik egin ahal izateko Espediente Kudeatzailetik.

Era berean, izapidetzea ere moldatu egin behar izan da, adibidez, agiri motak aldatu elektronikoki sinatutako agiriak Jaurlaritzaren **Dokusin** artxibategi elektronikoa gorde ahal izateko, tipologia zehatz bat baitute.



Ibaiak Lehengoratu

Badira urak berebiziko garrantzia duen hainbat ekosistema: galería-basoak, dunak, padurak. Horietako asko zeharo aldatu dira, edota atzera egin dute. Ondorioz, ingurune urtarraren lurraldeari dagokion izaera aldatu dugu eta lurraldea artifizializatu dugu; ekosistemaren dinamika naturalak zaildu ditugu. Pixkanaka, saiatu behar gara lehengoratzen.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=RgyO8Boc7zQ



5.1.5. erakundeen artean ibaien mantentze LANAK SUSTATZEKO HITZARMENAK

2015ko urriaren 20an URAk bilera bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen egoitzan (Vitoria-Gasteiz) Uraren Euskal Agentziak eta Udalak Jabari Publiko Hidraulikoaren ibilgu eta ertzetan elkarlanean aritzeko Protokoloaren inguruan informazioa eskaintzeko berau sinatu zuten edo sinatzeko interesa zuten Udal eta udal-taldeei.

Bilera horretan, Hitzarmenaren abiapuntu, gogoratu zen protokoloaren helburua zela lankidetzara koordinatu baterako oinarriak ezartzea Toki-administrazio eta URA-ren artean mantentze eta leheneratze jarduerak aurrera eramate aldera, betiere ibilgu eta ertzen egoera ekologiko ona lortzeko eta sekzio hidraulikoaren murrizketa saihesteko helburuarekin.

35 udal inguru hitzarmen horren hasieran era bateratu horretan lanean aritzeko interes handia aurkeztu zuten. Lanak zehaztu eta koordinatzeko URAk bilerak egin zituen, azaro eta abenduan zehar, protokoloa sinatu zuten Udalekin eta udalez gairikoa beste erakunde batzuekin, adibidez: Udaltaldea 21 eta Goiki, hurrenez hurren Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat udalen ordezkari izango zirenak.

Bilera horietan udalek jarduera interesgarriak proposatu ahal izan zituzten dagozkien udalerrietako ibilguen ingurumena hobetzeko, batzuk URAren esku geratu ahal zirenak, beste batzuk Udalen erantzukizuna izan beharko zutenak.

5.1.6. ISURKETEN ANALITIKAK KARGATZEKO TRESNA INFORMATIKOA (DKT)

2015eko uztailean jaso egin zen Isurketen Analitikak Kargatzeko Atari Pribatuaren Informazio Sistema, aurretiaz isurketen analitiken karga bezala izendatuta eta gaur egun DKT (Datuak Kargatzeko Tresna) bezala ezaguna. DKT tresna hobetzen jarraituko dugu 2016an zehar haren garapenaren bitartez.

Horrela kanpoko erabiltzaileei sarrera komuna eman zaie uragentzia.euskadi.eus webgunera; bertan URAren atari segururako sarrera aurkituko dute (erabiltzaileak- izen eman ondoren- erabili ahal dituen aplikazioak aurkituko ditu) eta, bide batez, era telematikoa jakinarazi ahal dituzte dagozkien isurketa baimenetan ezarritako autokontrolak. Hasiera batean, bakarrik 2000 biztanle baliokidetik gora dauden hiri-aglomerazioen autokontrolari ireki zaie aukera hau.

Halaber, tresna berri horretan jaso ahal izango dira URAk edo hark kontratatutako kanpoko laborategiek egindako analisisen emaitzen karga.

Gaur egun 2000 biztanle baliokidetik gora dauden hiri-aglomerazioen artean %90 baino gehiagok dagoeneko DKT-ren bitartez kargatzen dituzte haien datuak. Erabiltzaile horiek bide berri hori erabiltzen dutela ikusten denean, beste baimen batzuetan zehaztutako autokontrolak eskatzen hasi ahal izango gara, hala nola: beste aglomerazioetako erakunde titularrenak, isurketen kontrolerako kanona duten isurketa baimena dutenak, edota 3.000 euro/urte-ko baino gehiagoko kanona dutenak lehorretik itsasora egindako isurketentzako. Salbuespena izango dira denbora mugatu baterako ematen diren baimenak.

Informazioaren kargarekin eta OBI tresnaren garapenarekin modu eraginkorrean kudeatu ahal izango dira txosten eta kontsultak, bai barnetik datozenak zein kanpotik datozenak Europako zuzentarauak ezarritako beharrei erantzuteko txostenak prestatu ahal izateko (itsasora egindako isurketentzako OSPAR hitzarmena, ingurune hartzailean duen eraginaren kontrola, etab.).



5.1.7. OBIEE INFORMAZIOAREN KUDEAKETA DINAMIKORAKO TRESNA

2015ean zehar abian jarri eta burutu egin da informazioaren kudeaketa dinamikorako tresnaren formakuntza, txosten eta kontsultak era azkarrean lortzeko balioko duena.

- Lehenengo fase batean modulu bat egin zen txosten eta kontsultak sortzen dituen izapidetze administratiboan oinarrituta, batez ere espediente kudeatzailearen datuak erabilita.
- Bigarren fase batean beste modulu bat egin zen isurketen datuen inguruko txosten eta kontsultak egiten dituen, eta kasu horretan espediente kudeatzailearen eta analitika kargaren aplikazioaren datuak erabiliko dira.

Etorkizunean kontsulta eta txostenak hobetzea aurreikusten da eta berriak prestatzea behar berriak sortzen diren heinean.

5.1.8. UREN ERREGISTROA ETA APROBETXAMENDU-EMARIEN KONTROLA

Ekainaren 23ko 1/2006 EAEko uraren legeak Uren Erregistro Orokorra sortu zuen, bat bakarra Euskal Autonomia Erkidegorako eta Uraren Euskal Agentziak Kudeatuta (31.1 artikulua). Erregistro horretan izendatzekoak dira uren emakidak eta baimendutako aldaketak, baimenak, zehapenak eta lege horretan zehazten ziren beste aprobetxamendu, erabilera eta jarduera batzuk.

2015ean zehar, eta aurretik aipatutako betebeharrak erantzuteko helburuarekin, URAK Erregistro hori abian jartzeko aukeren hausnarketa hasi du. Lan hori egiteko TRAGSATEC enpresaren laguntza tekniko eta espezializatua izango dugu, mandatu baten bitartez.

2015ko martxoan eta sistemak izango dituen baldintzak ezartzen lagundu duten hainbat bileren ondoren enpresak tresnaren lehenengo analisi funtzionala aurkeztu zuen. Tresnak dauzkan baldintza nagusiak honako hauek izango dira:

- Izen-ematearen ziurtagiriak egin.
- SIG erreminta bat izatea aprobetxamendua grafikoki irudikatzea ahalbidetuko duena behar bezalako geoerreferentziarekin.
- Izena ematean agiri bat sortuko da sinadura elektronikoa izango duena.
- Uraren Zuzendaritza Orokorri dagozkion datuak era informatikoan helarazteko aukera, agindu zehatz batean ezartzen den moduan.

Uztailen Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Autonomia Erkidegoei aurkeztu zien Uren Erregistroa eta Uraren Base Orokorra egiteko erabiltzen duen tresna informatikoa, 2020. urtetik aurrera derrigorrezkoa izango den Uren Erregistroko datuen bidalketa errazteko hainbat bide aurkeztuz. Horretarako Uraren Euskal Agentziak EJIekin batera irtenbide egoki bat lortzeko aukera desberdinen analisia egiten ari da.

Halaber, 2015an zehar emarien neurketa- eta erregistro-gailuen ezarpena kontrolatzeko eta maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 agindura moldatzeko lanek jarraitu egin dute. Honako hauek izan dira mugarri garrantzitsuenak:



a la orden ARM/1312/2009, de 20 de mayo y entre los hitos más importantes destacan:

- Neurketa- eta erregistro-gailuentzako instrukzioaren zirriborroa egin.
- Aurreko instrukzioaren harira, egun dauden aprobetxamenduen bolumena kontrolatzeko sistemak ezartzeko prozedura bat egin.
- Kontrolerako sistema horiek ezartzeko eredu desberdinak egin.
- URAko ikuskarientzak eskuliburu bat prestatu.
- Maiatzaren 11tik 14ra URAko teknikarientzat formakuntza teknikoko jardunaldiak.

Lan horiek egin ondoren, eta instrukzio eta garatutako prozedurei euskarri juridiko bat emateko beharra ikusita, 2015 urtearen azken zatian hasi egin da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailburuaren Agindu bat onartzeko lanak, EAEko barne arroetako jabari publikoaren ur aprobetxamenduetatik hartutako ur-bolumena kontrolatzeko sistemak erregulatuko dituen. Agindu hori 2016. Urtearen hasieran onartzea aurreikusten da.

5.1.9. Aprobetxamendu nagusien ERREGULARIZAZIOA


2015an zehar, ofizioz, lehentasunezkoak diren aprobetxamenduen erregularizazioa hasi da:

Bizkaian izapidetutako aprobetxamendu nagusiak honako hauek izan dira:

- **Sopuerta Sistema**
- **Galdames Sistema**
- **Ondarroako Udala**
- **Artzetales Sistema**
- **Arrieta Sistema**
- **Berriatua Sistema**
- **Elmet enpresa**

Gipuzkoan Bizkaian izapidetutako aprobetxamendu nagusiak honako hauek izan dira:

- **Lezo Sistema**
- **Leintz Gatzaga Sistema**
- **Azpeitiako Udala**
- **Hormigones Aizo**





5.1.10. emari ekologikoen HITZARTZE PROZESUA

2015ean zehar arlo honetan Plangintza eta Lanen zuzendaritzarekin koordinatzeko hainbat lan egin dira, horien artean nabarmendu daitezke:

- Oka, Urola, Oiartzun eta Butroe Unitate Hidrologikoetako A taldeko aprobetxamenduei jakinarazpena bidali
- Hitzartu beharreko izen emate edo erabilera pribatiboen garbiketa egin
- Zalantza sortzen duten aprobetxamenduak ikuskatu

Hitzartze eta ezartze prozesu hori aurretik indarrean zeuden aprobetxamenduetan du eragina, baina ez ditu Plan Hidrologikoren barnean dauden etorkizuneko erabilerei ezartzen zaizkien baldintzak aldatuko.

5.1.11. gainezkatze -puntuen INBENTARIOA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari Nagusiaren 2015ko martxoaren 9ko Ebazpenaren bitartez moldatu eta onartu ziren Isurketa Baimen eta aitortpena egiteko txantiloiredu ofizialak, 2014an estatu mailan ezarritako araudira moldatze aldera.

Inprimaki berri horiek honako hauek osatzeko atalak barne hartzen dituzte: gainezkatze isurketa-puntuaren karakterizazioa, saneamendu sistema, gainezkatzearekin lotura duen drainatutako eremua, etab... (5'.1 y 5'.2 inprimakiak).

Behin inprimaki horiek onartuta, 2000 biztanle baliokidetik gorako hiri-aglomerazioetako baimenen titulartasuna duten pertsona eta erakundeei informazioa eskatu zitzairen araudian ezartzen den gainezkatze puntuaren inbentarioa osatzen joateko helburuarekin.

Lortutako informazioa ACCESS datu base batean bildu da eta, era berean, gainezkatze-puntu horien geoerreferentziadun kokapena GIS kapa batean sartuko da. Bide batez, EJI Eri eskatu zaio Espediente kudeatzailean leiho berri bat sartzea isurketa baimenen espedienteetan jasotako informazio

5.2 Baimen eta EMAKIDEN ARLOA

5.2.1. lan -baimenak ur -jabari PUBLIKOAN ETA ZAINZA-ALDEAN

Lan-baimenen helburu nagusia honakoa da: jabari publikoan edo haren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egiteko baldintzak ezartzea; hartara, ur-masen narriadura saihesteko, eta horien hobekuntzan ahalegintzeko. Betiere uholde-arriskugarritasuna aintzat hartuta.



Arroen bulegoetako arduradunek administrazio edota partikularrek jabari publiko hidraulikoan edota ibilgu-zaintzako eta zortasun-eremuetan egin ditzaketan jardun eta obren baimenak izapidetzen dituzte, lanon kontrola eta jarraipena barne.

2015. urtean Lan Baimenen inguruko 546 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 539 ebatzi. Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 391 kontsultari eman zaie erantzuna, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan. Horietatik 345 erantzun dira.

Halaber, arroen bulegoek guztira 22 hirigintza-txosten hasi dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzuteko edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzuteko: 17 ebatzi dira.

2015. urtean, nabigaziorako erantzukizun-aitorpena egiteko 92 eskaera erregistratu dira. Mediterraneoko arroetako bulegoan 86, beste 5 Mendebaldeko Kantauriar arroen bulegoan, eta bat Ekialdeko Kantauriar arroen bulegoan.


Bestetik partikularren 165 salaketa jaso dira guztira ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edota arau-hausteren bat zegoelako, beste batzuen artean.

Indarrean dagoen legegintza-esparruak xedatutakoari jarraiki, 43 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik. Zeregin horiez gain langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko lanak ere izan dira.

5.2.2. Lan-baimenak Itsas-Lehorreko ZORTASUN-EREMUAN

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzeaz gain, administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuetan egindako lan eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.

2015. urtean 84 baimen-espediente hasi eta 59 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 234 kontsulta-espediente eta txosten-eskaera hasi eta 172ri erantzuna eman zaie, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.







Bestetik, partikularrek egindako 28 salaketa jaso dira guztira, ustez baimenen baldintzak betetzen ez zirelako edo arau-hausteren bat ematen zelako, beste batzuen artean.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, 2 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota itsas-lehorreko jabariari eta zerranda elkartuei eragiteagatik.

5.2.3. UR JABARI PUBLIKOAK OKUPATZEAGATIKO KANONA

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroetako kanona likidatzen du.


2016. urtean, 2015ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 145.971 € .bilduko direla aurreikusten da.



*2012tik aurrera datuok txosten-kudeaketarako kudeatzailetik aterata



ILZ



*2012tik aurrera datuok txosten-kudeaketarako kudeatzailetik aterata

5.3 ISURKETA ARLOA

5.3.1. ISURKETA - BAIMENAK

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.

2015ean isurketak baimentzeko edo berraztertzeko (indarraldia iraungitzean) 203 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute. Bestalde, 200 isurketa-baimen ebatzi dira.

Horrez gain partikularren, administrazioen edo enpresen 58 kontsulta jaso dira eta 28 erantzun, aurretik aipatutako arloetan egin beharreko ekintzei buruz. Beste alde batetik, partikularren 228 salaketa jaso dira lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik. 2015ean 26 zehapen-espediente ireki dira isurketen arloko indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 2064 isurketa-baimenen jarraipena egin da, hondakin-uren araztegi (HUA) eta isurketa-puntu nagusien ustiaketa-txostenak aztertuz, arazketa-sistemak gaizki ibiliz gero ur-jabari publikorako kaltegarri gerta daitezkeela aintzat hartuta. Batez ere 2.000 biztanle baliokidetik gora duten populazioak izan dira kontuan.

5.3.2. INGURUMENEKO BAIMEN BATERATUA


Bestetik, ingurumena, oro har, babesteko helburuarekin 16/2002 Legeak Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen: hartara, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean. Hala hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan, nola ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.

2015ean zehar ingurumen-baimen integratuaren 16 ebazpen-proposamen berritan parte hartu dugu, eta beste 31 ebatzi dira, isurketa UJP edo ILZra egiten dutenak, eta horien jarraipena egiten ari gara.





Isurketa baimenak 2015




*2013tik aurrera datuak espediente kudeatzailetik ateratzen ditugu.



5.3.3. ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA

Ur-Jabari Publikora egiten diren isurketengatik isurketa kanona ordaintzen da, jabaria zaindu eta hobetzera bideratua. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroen kanona baino ez du likidatzen.

Jarraian, Isurketaren Kanonaren bilakaera azaltzen da.



5.4 ur- aprobetxamenduak


Ur-aprobetxamenduetarako emakidek honakoa lortu nahi dute: jabari publikotik ura hartzeko betebeharreko baldintzak ezartzea, lehentasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.

Mendebaldeko eta Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen, eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute. 2015. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 48 espediente berri hasi dira eta 70 ebatzi dira.

Bestalde, epealdi berean 600 erregularizatzeko-espediente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko: 49 ebatzi dira.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 27 espediente abiarazi dira epealdi honetan eta 4 erantzun dira.

Azkenik, indarreko legegintza-esparruaren barruan, partikularren 25 salaketa jaso dira eta ur-aprobetxamenduen inguruko zehapen-espediente 1 abiatu da.




Uraren erabilera

Euskadin erabilitako uraren %75a herritarren hornidurarako darabilgu. Ondorioz, isurketen zati nagusienaren jatorri. Euskadiko industriak ur-hartune eta isurketak askoz eraginkorrago kudeatzen ditu gaur egun. Hori aintzat hartuta, garrantzitsua da oso ur-hornidurarako hartune eta isurketa horiek ahalik eta eraginkorren kudeatzea. Hori lortze aldera, ur-hornidura eta saneamendua kudeatzen dituzten erakunde sendoak beharrezkoak ditugu.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=cLLXsVg3Kww



Aprobetxamenduak



5.4.1. Uraren Kanona

EAEen uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek Plangintza Hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEen, uraren erabilerak ingurumenari eragin diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarriko zaie kanona:

- Hirugarren batzuek hornitu arren, erabiltzailearen ur-kontsumoari.
- Azaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.


Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa kontsumitutako m³ bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera badira; horien arteko nabarmenena etxeke erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa). Bestalde, hobariak ere eska daitezke, eta hainbatetan zerga-oinarriaren %95era irits daiteke.

Bildutako dirua

2016. urtearen hasieran, guztira 1.607.311,41 €. iristen dira 2015. ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbatekoa denbora gutxi barru nabarmen handitzea,

aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2015ko ekitaldian guztira 2.618.502,58€. bilduko direla uste baita. Nabarmendu behar da kanon honen bitartez jasotako dirua azken urteetan jaisten joan dela.



(*1) Aurreikusitako kopurua behin urteko jarduera bukatutzat eman eta gero.

(*2) Aurreikusitako kopurua oraindik urteko-jardueraren ordaintze epea irekia baitago.

5.4.2. Uraren Erabileren Inbentarioa


Uraren Euskal Agentziaren Uraren Erabileren inbentarioan (IUA) biltzen da EAE mailan uraren aprobetxamenduaren inguruko informaziorik esanguratsuena, kontuan izan gabe bere egoera administratiboa edo eskumen-eremua. Helburua da kontsultak egin ahal izatea eta lortutako informazioa esportatzea.

5.5 IBILGUAK MANTENTZEKO ZERBITZUA

2015ean zehar zerbitzuaren esleipen bakarra eman izana, hiru lotetan, lan hauetarako ziurtagiri gutxiago egin behar izatea ekarri du, eta guztira 2.465.403,05 euroko aurrekontua izan du. Aurrekontuaren %23,35 ekosistemen hobekuntzarako ekintzetan inbertitu da (ingurumena lehengoratu, landaketak, inbaditzaileak eraztea) eta %70,65 uholde arriskua murriztera bideratutako ekintzetan (programatutako mantentzea eta ezustekoak).



Ubideak mantentzeko lanetan inbertsioa






zer da ibaiak garbitzea?


Denok gara ibaien “garbiketaren” erantzule. Urte anitz eman ditugu ibaietatik urrun; sarri, nolabait, gibelerarazi ditugu. Euskadiko hamaika herriei so egitea baino ez dago. Askotan ibaiak arrotzat jo izan ditugu, arazo-iturburu. Halere, ibaiak gu guztionak ditugu, denon artean zaindu beharreko espazio publikoak; gu guztion parte hartzea ezinbestekoa da haien mantentze eta babesa lortuko badugu. Bai ibaietara hel litezkeen hondakinak nonahi bota gabe, bai bestelako espazio publikoak txukun irauarazteko darabilgun zuhurtzi berberaz jardunez.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=WA3HAQnAAPM


Arro-bulegoka eginiko ibaien mantentze-lanen banakapena



Mendebaldeko arroen bulegoa



Ekialdeko arroen bulegoa



Mediterranear arroen bulegoa

2015ean ibilguen mantentze zerbitzuak egin beharreko lanen urteko plangintza egin da. Koordinazio bileratan hitz egindako gai nagusiak honako hauek izan dira:

- Mantentze-lanen kontratu berrirako pliegoak prestatu.
- “URA eta Udala ur Jabari publikoaren ibilgu eta ibaiertzetan lanetan elkarlanean aritzeko protokoloa” prestatu.
- Enpresa esleipendunekin eta aurrekontuekin egondako arazoak konpondu.
- Jarduketan lehenatasuna ezartzeko irizpide komunak adostu.

- Beste administrazio batzuekiko koordinazioa landu, eta bereziki espezie inbaditzaileak eta landaketak kentzeko proiektuetan.
- Mantentze-lanen tresna informatikoa eta datu-basea prestatu eta garatu.
- 2015. urtean egindako jarduketaren txostena.
- Urteko Plangintza: Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2016. ekitaldirako programa.


5.6 IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA

5.6.1. IKUSKARITZA - ARLOA

Urak Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Ikuskaritza zerbitzuak 2015ean zehar egindako jardueren artean nabarmentzekoak dira: Abiadura Handiko Trenaren jarraipena EAE osoan, Bermeo, Autzagane, eta Gerediaga-Elorrioko saihebideten jarraipena eta EAE osoan egiten diren ibilguen mantentze eta leheneratze lanak.

SOS-Deiatik jasotako abisuak



Nabarmentzekoa da, era berean, SOS Deiak erakundearen abisuen arretaren arloan egindako lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko edota eguneko edozein ordutan, lanegun zein jaiegunetan, eskaera guztiei erantzunez. 2015ean horrelako 352 abisuri eskaini diete arreta.

Ur-ikuskariek Jabari Publikoak jasaten dituen presioen jarraipena egin dute: obrak eta jarduerak, isurketak edo ur-aprobetxamenduak. Halaber, ikuskaritza zerbitzua obra baimenen eta emakida administratibo guztien jarraipen eta erregistroan jardun dira.

Mantentze zerbitzutik egindako ekintza ororen etengabeko jarraipena egin dute eta baita ibilguak mantentzeko hainbat ekintza proposatu ere.

Azkenik, jabari publiko edota itsas-lehorreko zortasun eta babes eremuan antzemandako edozein kalteren erregistroa egin da.

5.6.2. Laborategia

URAK Lasarten duen laborategian 2015. urtean 1250 lagin aztertu dira guztira. Horietatik 746 Ekialdeko Kantauriko Arroetako eremuan: 457 laginketa programatuetatik, 188 hiri-aglomerazioetako laginketa-planetatik, 31 ohiz kanpoko isurien ondorio eta 70 ikerketa laginetatik. Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremua 504: 204 laginketa programatuetatik, 262 hiri-aglomerazioetako laginketa-planetatik, 31 ohiz kanpoko isurien ondorio dira eta 7 ikerketa laginetatik.


Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, 05EB, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen

digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Administrazio hidraulikoaren Erakunde Lagun baten zerbitzuak kontratatu dira Mediterraneoko Arroetako Bulegoko langileek hartutako hondakin-uren laginen karakterizazio analitikoa egiteko. Erakunde horren bitartez 631 lagin aztertu dira, horietatik 124 aglomerazioetan laginak hartzeko planari dagozkie


Aztertutako laginak

Lagin guztiak vs programatutak



Aztertutako Laginak

URaren laborategia vs kanpoko laborategia





Ibaiak mantendu

Ibaien ingurumen-mantentze lanetarako programen xedek anitzak dira: ibaiertzak berreskuratzea, tokiko landaredia hedatzea, ibai-ibilgutik jada erabiltzen ez diren azpiegiturak kentzea. Era berean, azpiegituretan —presa, zubi... ur-emia oztopatzeko arriskua duten metakinak kentzen dituzte, jabeek azpiegitura horien ur-hustuketarako ahalmena mantendu ez dituztelako eta ur askoko sasoietan sor lezaketan arazoak saihesteko.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=mpPDixIYjuE

6. PLANGINTZA eta LANAK

6.1 PLANGINTZA HIDROLOGIKOA

6.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARNEKO ARROEN PLAN HIDROLOGIKOAREN BERRIKUSPENA

2015ean zehar Uraren Euskal Agentziak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinatuta, Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoaren Berrikuspenaren izapidetzea amaitu du, Uraren Esparru Zuzentzarauak ezarritako epean. Berrikuspen prozesu horren guztiaren ondorio da urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua Kantauri Mendebalde, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucarreko, eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialde, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.

Izapidetze horretan 2015ean urrats hauek eman dira:

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa EAEko Barneko Arroen Eremuan

- Plan Hidrologikoaren kontsultaren garapena (URaren zuzendari nagusiaren 2014ko abenduaren 18 Ebazpena hasiera ematen diona Planaren eta bere Ingurumen Iraunkortasun Txostenaren kontsulta publikoari). Bidenabar parte hartze aktiboaren prozedura aurrera eraman da, URAk eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak elkarlanean egindakoa. Kontsulta eta parte-hartze aktiborako prozesu horrek bi bide osagarri jarraitu ditu. Alde batetik, baliabide elektronikoak (webgunea, foro elektronikoak, gizarte sareak, etab.); beste alde batetik, tailer presentzialak, eztabaida gune izan direnak demarkazioan 2015-2021 ziklorako antzeman diren gai nabarmenenak jorratzeko. Tailer horien bitartez eragile interesdunek parte hartu ahal izan duten plangintza prozesuan, arazoak landuz eta irtenbideak aurkitzen lagunduz.





- Uraren Euskal Agentziako Administrazio Kontseiluaren onartu egiten du Plana eta bere Ingurumen Iraunkortasun Txostena, parte hartze publikoaren ondoren egoki iritzitako ekarpen eta iradokizunak gehitu ondoren (2015/07/21)
- Ingurumen Administrazio zuzendariaren Ebazpena Plan proposamenaren Ingurumen-Memoria burutzeko (2015/09/10)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena. (2015/09/16)
- Uraren Euskal Agentziaren Uraren Kontseiluaren aldeko txostena, eta URAREN Erabiltzaileen Batzarraren oniritzia(2015/09/23), kide guztien ahoa bateko erabakiarekin.
- Eusko Jaurlaritzak onartu egiten du Plan proposamena eta proiektuaren izapidetzea jarraitzeko akordioa lortzen da. (2015/10/06)

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa.

- Koordinaziorako Organo Kolegiatuaren akordioaren bitartez Demarkazioko EAEko Barneko Arroetarako eta Erkidego Arteko arroetarako Plan Hidrologikoen bateratze harmonikoa lortzen da. Organo horretan dauden ordezkariak aho batez onartzen dute (Nafarroa, Gaztela Lehoi eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak, EUDEL eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa (2015/10/06)
- Uraren Kontseilu Nazionalaren aldeko txostena (2015/10/28)
- Ministro Kontseiluaren onespena (2016/01/08)

Nabarmendu beharra dago izapidetze hau guztia, kontsulta eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa barne, demarkazioko Uholde Arriskua Kudeatzeko Plan berriarekin batera egin dela. Horretarako kontuan izan dira bien helburuen arteko sinergiak eta bien betebeharren eta izapidetze-epeen bateragarritasuna.

6.1.2. PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN BESTE JARDUERA BATZUK

Uraren Euskal Agentzial 2015ean zehar parte hartu du Kantauri Mendebaldeko zein Ebroko Demarkazioko 2015-2021 Plan Hidrologikoen berrikuspenean, bereziki kontsulta eta parte-hartze esparruari dagokionean.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundi eta Busturialdeako Ur-Partzuergoarekin elkarlanean, aurrera egin da Urdaibaiko biosfera-erreserba horniduraren Lurralde Ekintzako Planean. Agiri horren bitartez oinarriak ezarri nahi dira ur-hornidurarako dauden arazoak ekiditeko eta Okaren arloan emari ekologikoak errespetatzen direla bermatzeko. Arroaren egoeraren diagnosis eta antzemandako arazoak konpontzeko dauden aukerak aztertu ondoren ingurumen-organoari beharrezko agiri guztiak bidali zaizkio Lurralde Ekintzako Planaren Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidetzea has dezan.



Halaber, hainbat lan egin dira EAEn aurki daitekeen Zebra Muskuiluaren inguruan. Horren barne: “EAEn Zebra Muskuilua kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordeko” ordezkarien arteko koordinazioa; espezie honen larba populazioa eta ale helduen kolonien segimendu lanak; eta espezieak tokiko ur-gezako kuskubiko (nayadeak) populazioetan duen eragina aztertzea.



2015ean zehar Uraren Euskal Agentziak EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren lan gehienak burutu ditu, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen zuen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15-artikuluari jarraiki.



Diseinatutako prozeduraren arabera lan horiek unitate hidrologikoka aurrera eraman dira, 8 urrats edo fasetan, eta bertan aztertu dira 2013ko ekainaren 9an indarrean zeuden emakidak, barne arroetako ia guztiak (guztiak Deba izan ezik).

Azterketan horien emaitzak berariazko agirietan islatu dira, unitate hidrologiko bakoitzeko bana, eta ondoren kontsulta publikora zabaldu dira. Izapide hori amaitu ondoren, eta, kasuan kasu, beharrezko aldaketak eginda, guztira 2.575 aprobetxamenduren Hitzartze Prozesua amaitu dugu.



6.1.3. Ur-masen egoeraren JARRAIPENA EGITEKO SAREAK

2015. urtean, EAEko ur-masen egoeraren segimendu-programen mantentze lanak jarraitu dute, eta honako proiektu hauen bitartez garatzen dira.

- EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea.
- EAE barneko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko lurpeko uren kontrol-sarea.
- EAEko Barneko Arroen gizakion kontsumorako ur ekoizpena bideratutako uren kontrol-sarea.
- Kostaldeko bainurako eremuetako kontrol bakteriologikoa.

Sare horien helburu ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da; horiek guztiak UEZek ezarritako kontrol-eskakizunak aintzat hartuta.



Lan horien emaitzak eskuragarri dira webgunean. Sare horien helburua garrantzitsua da oso, uren kudeaketan informazio-pilatze horrek honako hauek ahalbidetzen dituelako: ingurumen-helburuak ezarri edota berrikustea; Plan Hidrologikoetan ezarritako neurrien programak ebaluatzea; eta, azkenik, baimenak eta emakidak kudeatzeko oinarri izatea.

Plangintza hidrologikoaren arloan eskumenak dituzten administrazio eta erakundeekin informazioaren partekatzea koordinatzeari dagokionez, lortutako informazioa estatu mailan eta Europa mailan eskaintzeko beharrari erantzun zaio: OSPAR Hitzarmena, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa diotenari jarraiki, beste batzuen artean

Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela nabaritu den eremuetan jarraipen bereziak egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten azaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehatzagoak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Loiolan, Bidasoan etab.

Plangintza Hidrologikoaren aurreko zikloan zehaztutako konpromisoerik erantzuteko berriazko lan bat egin da ibai motako ur masen egoera ekologikoaren ebaluazioa egiteko metodologia garatzeko, arrainak oinarri duena, eta bat datorrena UEZan aipatutakoarekin eta UEZaren ezarpenean diharduen lan taldeak ezarritako prozedurekin; betiere EAEko ibaietara eta haien ingurune geografikora moldatuta, batez ere kantauri isurialdeari dagokionez, eta 2015-2021 plangintza zikloarentzat ere baliogarria izaten jarraitzeko aurreikuspenarik.



Orobat, 2015ean dibulgaziorako agiri-sorta bat hasi da ur masen egoeraren jarraipenerako sareen informazioa integratzeko asmoarekin, eta haien egoeraz eta bilakaeraz era erraz batean informatu ahal izateko.

Plangintza hidrologikoak ezartzen dituen emari ekologikoen erregimenak betetze aldera EAEko Barneko Arroetako geratzen diren ur-aprobetxamendu nagusietan emari ekologikoen etengabeko kontrolarekin jarraitu du. Horretarako 100 aforo puntual egin dira ondorengo unitate hidrologikoen arto nagusietan: Barbadun, Ibaizabal, Butroe, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Oiartzun eta Bidasoa




6.1.4. Informazio - sistemak

2015. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu dugu, GeoEuskadiren barnean. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabaldutako datu eskuragarriak areagotu egin dira. Era berean, abian jarri da bisore berri bat Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Plan Hidrologikoaren informazioa jasotzen duena, eta beste bat emari ekologikoen hitzartze prozesuaren informazioarekin.

Halaber, ekoizpen prozesuan sartu da URaren Zeharkako Erakundeen proiektua. Bertan datuen taula nagusiak sartzen dira informazio geografiko zein alfanumerikoari dagokionez. Bisorea hori hainbat aplikaziotan integratzeko lanak hasi dira.

Bestalde, tokian bertan datuak jasotzeko lanei dagokionez, 2013an Uraren Euskal Agentziaren ibai-ikuskatzaileei landa-lanetan informazioa jasotzeko gailu eramangarriak eman zitzaizkien. Tokian bertan informazioa kontsultatzea edo datuak biltzea ahalbidetzen duten PDA motako ordenagailu eramangarriak dira. Gailuek, gainera, geokopakenerako GPS tresna dute, eta baita argazki- eta bideo-kamera edo datuak GPRS bidez bidaltzeko aukera ere. 2015an hainbat aldaketa egin dira datuak jaisteko sisteman, eta bildutako datuen kontsulta/ustiatetarako aplikazio berriak sortu da. Halaber, arlo horretan, aurreratu egin da lagin hartze eta zaintza planen ezarpenean.



Euskadiko uraren informazio sistemaren (EUIS) garapen eta ezarpenean aurrera egin da. Helburua da ur masen egoeraren segimendurako programa ezberdinen emaitzetan interesa duen ororentzat informazioa eskuragarri jartzea.



erriberako Landaredia

Galeria-basoa ezinbestekoa da ibai-ekosistemaren egoera ona lortuko badugu; baita bertan bizi diren edota lurraldea zeharkatzeko hura baliatzen duten espezieentzat ere. Ekosistema urtarrarentzat balio paregabeko babesa izateagatik, berau erauzteak ibaiaren potentzialtasun ekologikoa murriztea dakar.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=DC72LQjWNdk

6.1.5. Lankidetzza - hitzarmenak

2015. urtean ondorengo erakundeekin lankidetzza-hitzarmenak sinatu edo garatu dira, oro har, ekosistema urtarrak babestu eta/edo hobetzeko helburuekin.

Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI - Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzza-hitzarmena bat dauka, besteak beste, honako helburu hauekin: EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzea, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemak narriatzea prebenitzea eta horien egoera hobetzea, eta EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako kostaldeko eremuen kudeaketa hobetzeko ekintzak burutzea. Hitzarmen horren barruan, 2015rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira:

- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- Kutsatzaile zehatzen azterketa ondorengo trantsizioko ur-masen inguruan: Bidasoa (tributil estaño) eta Ibaizabal (hexakloroziklohexano).
- EAEko Kostaldeko bainurako eremuetako profilen berrazterketa
- Baliabide berritzaileak itsas-biodibertsitatea ezagutzeko eta ingurumen-egoera onaren ebaluatzeko Europar Itsas-Estrategiaren Zuzentarauaren harira (DEVOTES Proiektua).
- Zerbitzu ekosistemikoak berreskuratzea saneatutako ibaiadar batean Uraren Esparru Zuzentarauaren harira (MARS Proiektua)
- DGT CONFERENCE 2015: Diffusive Gradients in Thin films (DGT) deritzon osagaien inguruko nazioarteko jardunaldia
- Tributilestaño (TBT) osagaiaren inguruko ikerketak Bidasoa, Ibaizabal eta Oiartzun trantsizioko ur masen inguruan



Uraren Euskal Agentziak parte hartzen jarraitu du Arreko Caicedo Yusoko Lakuako LIC-aren ingurumena leheneratzeko Life-TREMEDAL proiektuan, Arabako Foru Aldundia eta HAZI Fundazioarekin batera. Proiektu horren helburua da Iberiar Penintsularen iparraldeko zenbait hezegune kontinentalen egoera hobetzea. Horren barruan Agentziak egindako lanak honako hauetara bideratu dira: ur masen segimendu hidrologikoa, landaredia urtarraren bilakaeraren azterketa, hezegunearen hondoaren topografia eta egituraren analisia, eta, bereziki, espezie inbaditzaileak kentzea (arrain eta karramarroak) ur masen egoera ekologikoan eragina izaten ari direnak.



2014ko abenduaren 15ean, Agglomération Sud Pays Basque, Niveko sindikatua, Agence de l'eau Adour-Garonne, Pyrénées-Atlantiques-eko Kontseilu orokorra Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Uraren Euskal Agentziak sinatutako Ur partekatuen kudeaketa-gutuna sinatu zuten. Haren harira 2015ean gutun horren barne erregelamendu eta ekintza planaren proposamenaren berrikuspena eta eguneraketa egin da. Gogoratu behar da gutun horren helburua dela administrazio arteko lankidetzaren sustatzea uraren kudeaketaren eta baliabide hidrikoen arloaren inguruan, partekatzen diren ibaietako ura era iraunkor, bidezko eta koordinatu batean erabil dadin.

Uraren Euskal Agentziak parte hartu du INTERREG_POCTEFA 2016-2019-
ren hurrengo deialdiko hautagaitzan, H2OGUREA proiektuaren bazkide laguntzaile gisa. Bertan parte hartzen dute baita ere Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Txingudiko Zerbitzuak, Urdax eta Agglosud Pays Basque. Proiektu hori orain gutxi amaitutako INTERREG Guratrans proiektuaren lanekin jarraitzeko asmoarekin jaio da, emaitza moduan partekatutako uren gutuna utzi zuena. Proiektu berri horrek xede du, alde batetik, eragile eskudunen arteko koordinazioa lortzea mugaz gaindiko arroetan, eta, beste alde batetik, urarekin eta ingurune urtarrarekin harremana duten zuzentarauen helburuen garapena. Uraren Euskal Agentziak ingurumen ekintza zehatzen garapenean parte hartzeaz gain, lidergoa izango luke uholdeen kudeaketarekin harremana duten ekintzetan.





Ura, denon ondasuna

Ura gu guztiona da. Ordaintzen dugun sariarekin kudeatzea ordaintzen dugu: kantitate eta kalitate onean, 365 egunetan, 24 orduro, etxean izatea ahalbidetzen digun kudeatze hori. Izan ere, urak ez du ordainik!

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=mNuqIVT7Lo

6.1.6. Formakuntza ETA SENSIBILIZAZIO EKINTZAK

2015ean Uraren Euskal Agentziak jarraitu egin du uraren arloan parte-hartze, formakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatzen eta abian jartzen.

2015ean zehar URAk ingurune urtarraren inguruko zientzia, formakuntza eta dibulgazio ekitaldietan parte hartu du. Nabarmendu daitezke, beste batzuen artean: Dueroko Konfederazioak 2015ko maiatzean antolatutako ibai eta ibaiertzen inguruko ikastaroan izandako parte hartzea edota UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Unesco Catedra-n izandako parte hartzea 2015ko abenduan.

Era berean, URAk UPV/EHUrekin elkarlanean jardun du Ebroko aroko zerbitzu ekosistemikoen seminarioa garatzen, eta Euskadi uraren kudeaketarekin harremana duten eragileen parte hartzearekin, GLOBAQUA proiektuaren barruan (Vitoria-Gasteiz, 2015ko abendua).



Sentsibilizazio estrategiarekin jarraituz, erakusketa mugikorren bitartez, 2015ko martxoan zadorraren inguruko erakusketa fotografikoa egin zen Zadorra ibaiaren memoria” izenburupean. Bertan aspaldiko eta gaur eguneko argazki bikoteen konparazioaren bitartez Zadorraren ibaiaren paisaiak azken hirurogei urtetan izandako garapena ikus zitekeen.





6.2 eBALUAZIOA

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txostena egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplika dezakeen arau multzora egokitzen dela egiaztatzeko. Lan hori Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan estuan garatzen da eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena egitea.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan I letrari jarraiki (Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera).
- Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan k) letrari jarraiki (Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren

babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera).

- Hirigintza-espeditenteen txostena udalen behin-behineko onespeneren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espeditentea behin betiko onartu baino lehen.
- Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, abeltzantza jarduetarako baimenen izapidetzeri buruzkoa txostenak 515/2009 Dekretua jarraiki, eta abar.

Horrela, ebaluazio-arloaren 2015ean aldiko jarduera honela laburbil daiteke azterturiko espeditenteen zifrak kontuan izanda eta idatzitako txosten edo ohar infor.

- 65 espeditente Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin loturikoak, batez ere honako arloetan: aprobeitxamenduen administrazio-erregularizatzea, plangintza hidrologiako onspen-txostenak, eta abar.
- 209 espeditente honako arloetan: ingurumena, luraren kalitatea, nekazaritza jarduerak, kontsultak harrobi edo zabortegien kokapen egokiari buruz eta hirigintzari buruz. Hirigintzaren kasuan Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean esparruan txostena egin aurreko faseetan.

59 espediente hirigintza-planteamenduen berrikuspenari loturikoak, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean esparruan, espedientea behin betiko onartu baino lehen.

Halaber Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin batera lan egin da hainbat presa txiki iragazkor egiteko proiektuak aztertzen, arrainen mugikortasuna hobetzeko helburuarekin

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara eta lau txosten egin dira Erkidegoko arroetako hainbat zubi eta elementu arkitektonikoen inguruko ebazpen edo ebazpen zirriborroen harira.


Azkenik, 2015ean zehar, eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin batera, aldizkako bilerak egin dira Kantauri Ekialdeko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinatzeko: zehazki, hirigintza- eta ingurumen-txostenak egiteko orduan, Erkidego arteko Arroetan kokatutako proiektu eta planen inguruko kontsultei loturikoak.

6.3 Uholdeei AURREA HARTZEA

6.3.1. Uholde-arriskuaren ebaluazio eta kudeaketa EAEN

Uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzko Europako Parlamentuaren 2007/60/CE hirugarren eta azken fasearen izapidetzea izan da 2015. urtearen mugarrria arlo honetan.

Lehenengo fasean Uholde Arriskuaren Aldez Aurretiko Ebaluazioa (UAAE) egiten da. EAEko barneko arroi dagokienez, formalki 2011an onartu zen URAREN zuzendari nagusiaren abenduaren 13ko ebazpenaren bitartez; Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Erkidego Arteko Arroei dagokienez, Uraren zuzendari nagusiak onartu zituen 2011ko abenduaren 14an, eta, horiekin batera, Kostalde eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak kostaldeko uholdeen inguruan prestatutako informazioa ere onartu zen. Bere aldetik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2011ko ekainaren 1ean kontsulta publikora zabaldu zituen, gutxienez hiru hilabetez, bere eskumenekoa den eremuko UAAE-aren agiriak.







NOLA AURREIKUSI UHOLDEA

Gure lurraldearen ezaugarrietako bat da menditsu samarra izatea, bailara anitzeko, ibai labur eta azkarrez zeharkatua. Menditik bokaleraino, distantzia txikian, urak azkar egiten du bide. Halaber, lurraldean populazio-dentsitatea handia da; ondorioz, urteak joan, urteak etorri, bailaren lautadak okupatu ditugu, eraikitzeko errazago izateagatik. Baina eremu horiek dira urak bere egiten dituenak ur askoko sasoietan handiago jariotzen duenean. Horrexegatik, gaur, ezinbesteko zaigu ahalik eta hoberen aurreikusten saiatzea ur-gordaldia noiz etorriko, eta zein nolakoa izango den ikustea.

➔ https://www.youtube.com/watch_popup?v=BcBd3AXtHkc

Bigarren fasean aurreko fasean Uholde Arrisku Handiko Eremua bezala izendatutako eremuetan uholde-arriskugarritasun eta arrisku mapak egin zen. 2013ko abenduaren 19an amaitu zen, EAEko Barneko Arroei dagokienez, Erabiltzaileen Batzarraren aldeko txostena jaso ondoren. Kantauri eta Ebroko eskumenen eremuei dagokienez, 2013ko azaroan eta 2014ko urtarrilaren 10ean hasi zituzten haien kontsulta publikorako epeak, hurrenez hurren.



Aurrekari horiek guztiak abianpuntutzat hartuz 2014ean zehar EAEko Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (PGRI) landu genuen, EAE-ren esparruan dauden Demarkazio Hidrografikoetarako. 2014ko abenduaren 18an URAREN zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez, EAEko Barneko arroen agiriak kontsultagai jarri ziren.

Informazio epea 3 hilabetekoa izan zen Planaren Proiektuaren kasuan, eta 6 hilabete Ingurumen Iraunkortasuneko txostenaren kasuan. Amaitzean, bi agiriek URAREN Administrazio Kontseiluaren oniritzia jaso zuten 2015ko uztailearen 21ean, onzat emandako ekarpen eta iradokizunak gehitu ondoren. Hurrengo faseak honako hauek izan dira: irailaren 10ean, Ingurumen Administrazioko zuzendariaren aldetik Plan proposamenaren ingurumen-txostena onarpena; irailaren 15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordearen aldeko txostena; irailaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena; irailaren 23an URAREN Uraren Kontseiluaren eta Erabiltzaileen Batzarraren aldeko txostena eta onespena; hurrenez hurren; eta, urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzak onartu egiten du Plan proposamena, eta izapidetzearekin jarraitzeko akordio batera iristen dira.


Kantauri Ekialdeko Demarkaziorako EAEko Barne arroetarako aurrera eramandako izapidetze prozesu baliokide eta osagarri bat egin ondoren, Koordinaziorako Organo Kolegiatuan Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana bateratu bat lortzen da, kide guztiek .Nafarroa, Gaztela Lehoi, eta Euskadi, EUDEL eta Kantauriko Konfederazioa. aho batez onartzen dutena (2015/10/06). Agiri horrek Uraren Kontseilu Nazionalaren aldeko txostena jasotzen du 2015ko urriaren 28an.



Nahiz eta 60/2007 zuzentaraua estatuko araudirak ekartzen duen 903/2010 ED-aren arabera planak 2015ko abenduaren 22rako amaituak egon behar izan, urtea Ministro Kontseiluaren onospena jaso gabe amaitu zen, eta, ondorioz, Errege Dekretua onartu gabe. Hala ere, 2016. urtea hasi eta berehala urtarrilaren 15ko 20/2016 E.D. promulgatzen da Kantauri Mendebalde eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde-arriskua Kudeatzeko Planak onartzen dituen.

Kantauri Ekialde eta Mendebaldeko eta Ebroko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen berariazko agirietaz gain (dagokion administrazio hidraulikoaren webgunean edonorentzat eskuragarri daudenak), URA, bisorearen bitartez, erabiltzaileen esku jartzen joan da arriskugarritasun kartografia eta dagokion modelazio hidraulikoaren datu nabarmenenak. 2015aren amaieran prest daude Uholde Arrisku Handiko Eremuak osatzen duten 400Km-ak, EAEko sare hidrografikoaren ibilgu nagusiaren 600km-ekin batera, eta modelo hidraulikoetan zehaztutako 17.000 perfil.

Lehentasuna duen uholde arriskua murrizteko helburua betetzeari dagokionez, 2015ean zehar 137 txosten eskari jaso dira: 21 hirugarren baten ikerketa hidraulikoaren baliospena egiteko, 46 aurkeztutakoak uholde arriskua kudeatzeko planaren irizpideekin bat datorren aztertze eta beste 70 uholde arriskugarritasunari buruzkoak.





zadorrako urtegi sistema


Euskadiko urtegi-sistematik garrantzitsuenak asetzen ditu EAEko populazioaren ia erdiaren ur-eskaerak.

→ https://www.youtube.com/watch_popup?v=vMOheLlKiAo



6.3.2. Aurreikuspen eta Alerta HIDROLOGIKOEN SISTEMA (UHATE)

2015an zehar sistemak alertak sortu ditu euri-gogorretako gertakariren barruan, Horrelako kasuetan protokoloak ezartzen duena jarraiki hala Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza, nola horrelakoetan biltzen de krisi mahaiko kideak ibai eta urtegieta kokatutako kontrol puntuetan gertakariak izan duten bilakaeraren simulazioaren emaitzen jakinarean gainean egon dira. Urtegiei dagokionez, era berean, Ebro zein Kantauriko Konfederazioei hainbat ekintza proposamen helarazi zaie Zadorra eta Añarben izandako gertakarietan.



Sistema etengabeko hobekuntza prozesu batean dago simulazioak ahalik eta zehatzenak izan daitezzen, eta sistemaren ahalmenak handituko dituen tresna osagarriak abian jarri ahal izateko.

6.3.3. Informazio hidrologikoaren SISTEMA AUTOMATIKOA (SAIH)

Sistema honek, gaur egun, EAEn kontrol hidrometeorologiko eta kalitaterako sare bateratua osatzen duten kontrol puntuetatik jasotako informaziotik edaten du. Horien ustiapena honako erakundeek egiten dute: Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza, URA; Kantauri eta Ebroko Konfederazioek estazio batzuk dituzte, eta Añarbeko urtegiako monitorizazioak eskaintzen duen informazio nabarmenenena ere erabiltzen da.

Sistema mantentzeak bertan sartzen den informazioaren etengabeko monitorizazioaren beharra dakar eta lortutako datuak iragazi eta balioztatzearena. Lan horrek guztiak xede du EAEko parametro hidrometeorologikoaren bilakaeraren serie adierazgarriak sortzea.

6.4 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu plangintza hidrologikoan aurreikusitako eta URAREN erantzukizuna diren zenbait helburu lortzeko, hala nola ur-masen egoera ona eta babes egokia,

uholdeen aurkako defentsa. Horrekin batera beste erakunde batzuen erantzukizuna diren helburuak lortzeko elkarlanean aritu gara, hala nola, ur-eskariei erantzutea eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek burututa hainbat gauza lortzen dira, besteak beste: kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.



Uraren Euskal Agentziak 2015. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Oiongo HUAren proiektua idazten hasi.
- Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan jarduketa hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenean barne hartuta dauden proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.

- Abetxukoko zubi zaharra berreskuratzeko lanak hasi dira.
- Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumenaren hobekuntza lanak jarraitzen dute Errekagane tartean, Getxon.
- Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumenaren hobekuntza lanak hasi dira Faduran, Getxon.
- Areatzan, Arratia ibaia egokitzeko lanak amaitu dira
- Donostian, Rekalde eta Errotaburu artean, Añorga erreko uholdeez babesteko eta saneamendua egiteko proiektuaren behin behineko etenaldia amaitu eta aurrera egin da.
- Martutene auzoan Urumea ibaiaren uholdeei aurre hartzeko lanen lehenengo fasea hasi da
- Villabona-Zizurkilen Oria ibaiaren uholdeei aurre hartzeko lana bigarren fasea hasi da
- Jarraitu egin da Inturiako presaren eraispeneren 3. Fasearekin Leitzaran ibaian, LIFE+IREKIBAI proiektuaren esparruan. Proiektu horren xedea da Leitzaran eta Bidasoa ibaiaren ingurumenaren egoera hobetzea eta bertan parte hartzen dute Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hazi Fundazioa eta Nafarroako Gobernu.

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Ur Agentziari dagokio, barne-arroetako, zein barne-arroetakoak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikusi eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da.

Uraren euskal agentziaren memoria

→ 2015KO ←

